

PROIEKTU ARTISTIKOEN DEIALDIA

“OROITZEAK DAKARREN ASKATASUNAZ”

Lemoako Udalak, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatearekin batera, “Oroitzeak dakarren askatasunaz” deialdia egin du.

1. PARTE-HARTZAILEAK

Ekimen hau 2022/2023 ikasturtean UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean ofizialki matrikulatutako ikasleei zuzenduta dago (Gradu eta Graduondoko ikasketetan).

Era berean, azken bost urteetan Arte Ederren Fakultatean ikasketak amaitu dituztenak ere aurkeztu ahal izango dira, 2017/18 ikasturtetik aurrera.

Gainera, Arte Ederren Fakultatean ikasketak burutu dituzten lemoaztarrek ere aurkeztu ahal izango dira, edozein ikasturtekoak.

Hautagaiak banaka edota taldeka aurkeztu ahal izango dira.

2. DEIALDIAREN GAIA ETA XEDEA

Deialdiaren helburua Lemoako Memoria historikoan oinarritutako proiektu artistikoak garatzea da. 1936ko Gerra zibila eta gerra osteko diktaduraren garaia eta gerraren giza dimentsioa izango dira abiapuntu, orduko andre, gizon eta umeen egoerak eta bizipenak gaurkora ekartzeko eta berauei aitortza justu eta egiazkoa egiteko (memoria historikoaren gaiari buruzko informazio gehiago deialdiarekin batera argitaratutako eranskinean irakur daiteke).

Proiektuak Lemoan garatzeko aukera izango dute ikasleek, Artearen ikuspuntutik herriaren testuinguruan sakontzeko. Ikasleek beti ere bere ikuspegia eta herriaren nahiak uztartuko dituzte.

Proiektuaren emaitza iraunkorra nahiz ez-iraunkorra izan daiteke eta Lemoako Udalak, artista entzun ondoren, zehazten duen gunean kokatuko edo garatuko da.

3. HIZKUNTZA

Deialdi honetan aurkeztuko diren proiektuak euskaraz garatuko dira.

4. IZEN-EMATEA

Lehen fasean hiru hautagai aukeratuko dira gehienez, banaka edo taldeka, aurreko ibilbidea eta lana kontuan hartuta, proiektu espezifiko bat gara dezaten 2022ko urritik urtarrilera arte bitartean aurkeztu ahal izateko.

Lemoako Udalean aurkeztu ondoren, proiektu bat aukeratuko da gauzatzeko eta urtero maiatzean ospatzen den memoria astean aurkeztuko da herriari.

-Curriculum laburra eta eskatzailearen kontaktu-informazioa.

-UPV/EHU Arte Ederren Gradu edota Graduondoko ikasketetan matrikularen gordekina edota bukatu izanaren egiaztagiria.

-Lan pertsonalari buruzko dokumentazio grafikoa/portfolio pdf formatuan (aurreko ibilbidea eta lana, gehienez 4Mb).

5. ENTREGA-EPEA

Eskaerak aurkezteko epea (CVak eta portfolio) 2022ko irailaren 26a da. UPV/EHU Arte Ederren Fakultateko Unibertsitate Hedapenerako Dekanordetzan aurkeztu beharko dira, paperean edo hurrengo helbide elektronikora bidaliz: ecultural.bellasartes@ehu.eus

6. EPAIMAHAIA

Epaimahaia UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko bi irakaslek eta Lemoako Udaleko bi ordezkari osatuko dute.

7. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Epaimahaiaren erabakia publikoa eta ezeztazina izango da eta 2022ko urriaren 3 baino lehen ezagutaraziko da.

8. HAUTATUTAKO EGILEAK

Aurkeztutako eskaeren artean epaimahaiak 3 pertsona edota talde aukeratuko ditu garatuko ditzaten Lemoako deialdiaren gaia jorratzen duten proiektuak (proiektu bana hautatutako eskaera bakoitzeko).

Proiektuaren garapena bermatzeko, proiektu bakoitzak 800 euroko diru laguntza jasako du bi alditan: 400 euro deialdia ebatzitakoan eta beste 400 euroak proiektuaren garapena Udalean entregatzerakoan.

Lemoako Udalak zehaztuko ditu 3 proiektuen garapeneko ezaugarriak. Hautatutako eskatzaileek proiektu bakoitza Lemoan entregatuko dute 2023ko urtarrilean. Aurkezpene euskaraz izan beharko da, egileak berak zuzenean edo berak ekarritako norbaitek egin dezake.

Urtarrilean, garatutako 3 proiektuetatik Lemoako Udalak irabazlea aukeratuko du. Irabazleak 2.500 euroko diru laguntza jasoko du proiektua burutu ahal izateko, Lemoako Udalak zehaztuko dituen epeen barruan.

9. LANAK ITZULTZEA

Aukeratuak izan ez diren eskatzaileen dokumentuak, paperean aurkeztu badituzte, UPV/EHU Arte Ederren Fakultateko Unibertsitate Hedapenerako Dekanordetzan jaso ahal izango dira 2022ko urriaren 15a baino lehen. Une horretatik aurrera lehiaketa honen antolakuntza ez da izango lanen arduraduna.

10. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honetan parte hartzen dutenek adostasun osoz onartuko dituzte oinarri hauek eta epaimahaiak aurreikusi gabeko arazoak edo egoerak konpontzeko har ditzakeen erabakiak.

Oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein egoera sortuz gero, lehiaketaren antolatzaileek hartuko dituzte horri buruzko erabakiak, ahalik eta modurik egokienean.

11. KONTSULTAK

Lehiaketari buruzko edozein kontsulta egiteko, UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko Unibertsitate Hedapenerako Dekanordetzarekin harremanetan jarri: ecultural.bellasartes@ehu.eus